

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

**Garapenari Laguntza Emateko
eta Kooperaziorako Fondoa
(FOCAD)**

**Fondo para la Cooperación y
Ayuda al Desarrollo
(FOCAD)**

2002



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	4
I. ONDORIOAK.....	7
I.1 Ondorio orokorra.....	7
I.2 Bestelako ondorioak	7
II. AZALPEN ATALAK ETA GOMENDIOAK.....	10
II.1 Garapen proiektuetarako dirulaguntzak.....	10
II.2 Laguntza humanitarioak eta hitzarmenak	17
II.3 Bekak	20
II.4 Aurreko urtealdietako emakidak	22
II.5 Aurrekontua egitea.....	24
II.6 Programaren kudeaketa gastuak	25
II.7 Sarrerak	26
III. EKONOMIA ETA KUDEAKETARI INFORMAZIOA	28
III.1 Gastuak	28
III.2 Sarrerak	28
III.3 Hondakinak	28
III.4 Urteanitzekoak	28
III.5 Helburuak, ekintzak eta adierazleak.....	29
ERANSKINAK	56



INTRODUCCIÓN	30
I. CONCLUSIONES	33
I.1 Conclusión General	33
I.2 Otras Conclusiones.....	33
II. APARTADOS EXPLICATIVOS Y RECOMENDACIONES	36
II.1 Subvenciones para proyectos al desarrollo	36
II.2 Ayudas humanitarias y convenios	43
II.3 Becas	45
II.4 Concesiones de ejercicios anteriores	48
II.5 Presupuestación.....	50
II.6 Gastos de Gestión del programa.....	51
II.7 Ingresos.....	52
III. INFORMACION ECONOMICA Y DE GESTION	54
III.1 Gastos	54
III.2 Ingresos.....	54
III.3 Residuos	54
III.4 Plurianuales	54
III.5 Objetivos, acciones e indicadores.....	55
ANEXOS	56
A.1 Subvenciones concedidas en el ejercicio 2002.....	56
A.2 Expedientes de compra de bienes y servicios corrientes.....	63
A.3 Subvenciones concedidas en ejercicios anteriores.....	64
ALEGAZIOAK / ALEGACIONES	66

Vitoria-Gasteiz, 2004ko uztailaren 29a
Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2004



SARRERA

“Garapenerako Kooperazioa” aurrekontu programari buruzko txosten hau (FOCAD) Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraiki mamitu da eta 2003ko ekaina – 2004ko maiatza bitarteko Urteko Lan Programan barne hartua dago, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta.

FOCAD Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu programa da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailaren Garapenerako Kooperazioaren Zuzendaritzak kudeatutakoa. 2001eko irailera arte Lehendakaritza Sailean jaso zegoen, Kanpo Ekintzarako programaren baitan azpiprograma modura.

Lanaren mamia FOCADen kontura emandako dirulaguntzen analisisa egitea eta dagokin araudi erregulatuarekiko egokitzen zaiola aztertzea izan da; baita, programaren gastu eta sarreraren aurrekontuzko isla eta emandako laguntzen jarraipen eta kontrola egitea, abian jarritako xede eta ekintzen betetze maila zehaztearren.

Txostena honako atal hauetan zati-banatzen da:

- Ondorioen atala, programaren xede eta ekintzei dagokienez alderdi esanguratsuenak jasotzen dituen, kontularitzako erregistroa eta 2002ko urtealdian gauzatutako ekintzak legezkotasunari egokitzen zaizkiola aztertzen duena.
- Gomendioak eta Azalpen Atalak, Garapenerako Kooperazioa programarekin lotutako eduki ekonomikoa duten jarduera guztiak azaldu eta xehekatzen dituen.
- Programari dagozkion kontu ekonomikoak, EAEn aurrekontuaren likidaziotik eskuratutakoak, 2002ko urtealdikoak.
- Eranskina, 2002ko urtealdian emandako dirulaguntzak zehazten dituen.

2002ko urtealdirako programaren aurrekontuak 30.217 mila euro egin zituen, 28.252 mila euroko gastuak agindu zirela eta 16.790 mila euroko konpromiso kredituak sortu; hauei gehitu behar zaizkie aurreko urtealdietan hitzartutako 5.386 mila euro, ondoko xehekapenaren arabera:

	Mila euro	
	Arrunta	Konpromisoak
Garapenerako proiektuak.....	6.673	15.568
Emergentzia laguntzak eta hitzarmenak	1.469	381
Bekak.....	787	841
Euskal Gazteri Kooperantea	67	-
Aurreko urtealdietan emandako dirulaguntzak.....	18.397	5.386
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	545	-
Langile gastuak	315	-
GUZTIRA	28.252	22.176



FOCADen konturako dirulaguntzen emakida Garapenari Laguntza Emateko eta Kooperaziorako Fondoaren Batzorde Kudeatzaileak aurrez onartuta egiten da. Batzorde hau erakundearteko izaera duen organo kolegiatu modura dago eratua, honako kide hauez osatua: Eusko Jaurlaritzaren hainbat ordezkari, Aldundi bakoitzeko ordezkari bat, Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen batzordeko lehendakaria eta Emakunde Erakunde Autonomoaren zuzendaria.

Dirulaguntzak emateko jarduera batik bat proiektuei laguntza emanez garatzen da, honako helburu hauekin:

- Herrialde pobreen eta/edo gune pobreetako herriguneeen garapen gizazko, jasangarri, endogeno eta parte hartzailea, irabazi asmorik gabeko erakundeen bidez.
- Herrialde pobretuetan kooperazio eta garapenerako garapen ekoizlea, prestakuntza eta laguntza teknikoa, unibertsitate, enpresa, ospitale, zentro teknologiko, prestakuntza emateko ikastetxe eta merkataritza izaerarik gabe atxikitako entitateen bitartez.
- EAEn giza sentsibilizazioa eta/edo garapenerako heziketa, irabazi asmorik gabeko erakundeen bidez.

Halaber, beste bi dirulerro arautu dira aparteko dirulaguntzak emateko:

- Ekintza humanitarioak larrialdietarako.
- Erakunde publiko zein pribatuekin elkarfinantzaketa hitzarmenak, aurrez aipatutako dirulaguntzak eskatzeko aukerarik ez dutenean.

Honez gain, bada diruz lagungarria den beste jarduera bat, hiru moldetan beka ematea xede duena:

- Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeekin (GGKE) kooperanteei laguntzak.
- Nazioarteko Erakundeei Laguntzak, EAEko pertsona kooperanteei beka emateko.
- Kooperazioko profesionalak berriaz gaitzeko beka.

Jarduera lerro ezberdinak arautzen dituen legedia eta 2002ko urtealdiari dagokion araudia, ondoko hau da:

- 171/2002 DEKRETUA, uztailaren 9koa, 2002ko urtealdirako Garapenari Laguntza emateko eta Kooperaziorako Fondoaren kontura proiektuei laguntzak ematea arautu eta deitzen duena.
- 388/1995 DEKRETUA, uztailaren 27koa, Garapenari Laguntza emateko eta Kooperaziorako Fondoaren kontura euskal kooperanteei laguntzak ematea arautzen duena eta 2002ko urriaren 31ko AGINDUA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuarena, 2002rako laguntzak deitzen dituena.



- 120/1997 DEKRETUA, maiatzaren 27koa, Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeei eta horietara lotutako pertsona juridikoei laguntzak ematea arautzen duena, Nazioarteko Erakunde horiek Hirugarren Munduko herrialdeetan dituzten garapen proiektuetan esku hartzen duten EAERen Kooperante Bolondresei bekak ematea xede duena; eta 2002ko urriaren 31ko AGINDUA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuarena, 2002rako laguntzak deitzen dituena.
- 138/1997 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Garapenerako Kooperazioaren alorrean profesionalak berariaz gaitzeko bekak arautzen dituena; eta azaroaren 20ko AGINDUA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuarena, 2002rako laguntzak deitzen dituena.
- 627/1991 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskal Kooperanteari Saria eratzten duena; eta azaroaren 30eko AGINDUA, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuarena, 2002rako saria deitzen duena.
- AGINDUA, 2002ko apirilaren 9koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailburuarena eta Kultura Sailburuarena, 2002ko urtealdian zehar 2000ko otsailaren 23ko AGINDUA -abian dagoen urterako Euskal Gazteri Kooperantea programa deitzen duena-aplikatzeko beharrezko epeak ezarri eta egokitzen dituena.



I. ONDORIOAK

I.1 ONDORIO OROKORRA

Aurrekontu programak helburu bat zehazten du: “Garapen bidean dauden herrialdeekin (GBH) kooperazioa sustatzea” eta batik bat izaera administratiboa duten 4 ekintza bereizten ditu, zein bere adierazleekin; EA Eren Administrazio Orokorraren 2002ko urtealdiari dagokion Kontu Orokorrak, berriz, ez du ekintza horietako bat ere kuantifikatzen eta honek Euskadiko aurrekontu erregimenari dagokionez indarreko legezko erabakiei buruzko irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren 40. eta 124. artikulua urratzen ditu.

Aurrekoaren ondorioz, ez dago ondoriorik ematerik programaren helburuarekiko gastuaren egokitasunari dagokionez.

I.2 BESTELAKO ONDORIOAK

Aurrekontu programa aztertu dugu eta bertan adierazgarri iritzi diegun hainbat atal azaleratu zaizkigu:

1. Hainbat dokumentazio iturritatik, Legebiltzarrean saileko Aurrekontua aurkeztetik edo 171/2002 Dekretuaren Zioen adierazpenetik, esaterako, Garapenerako Kooperazio Zuzendaritzaren hainbat jarduera-ildo eskuratu ditugu, aurrekontuan azaldu behar duen informazioa eta bere likidazioa zuzentzeko helbururik izan gabe, programak eta honen jarduerak lortu asmo dituzten helburuetarik zenbait islatzen dituztenak.

- a) Epe ertainean garapenerako kooperazio politiketan aurrekontuaren %1 ematera iristea: Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu ahalegina 2002ko urtean aurrekontu operatiboaren %0,71 izatera iritsi zen (langile gasturik gabe, ezta zorpetzeak eragindako gastua ere). Portzentaje hau %0,63ra murrizten da urtealdiaren egiazko exekuzioa gogoan badugu. Egindako gastuetatik, %23a diputazioek finantzatzen dute.
- b) Kooperaziorako Legea garatzea: oinarritzko lehenengo dokumentu bat Gobernu Kontseiluari aurkeztu zitzaion 2002ko maiatzean. Honez gain, hainbat bilkura egin dituzte Kooperaziorako aholkularitza batzordearekin, 2003an Aurreproiektua oniritzi duena.
- c) Irabazi asmorik gabeko erakundeentzat espazio handiagoa bermatu eta administrazioaren parte hartze handiagoa proiektuen elkarfinantzaketan: egiazko terminoetan, erakunde hauek kooperazio proiektuetarako egindako ekarpena %2,2 gehitu da 2001arekiko, nahiz 2000koa baino %12 txikiagoa den. Proiektuen aurrekontuaren gainean finantzatutako portzentaia %57,4 izatetik, %61,2 izateraino gehitu da.
- d) Honako jarduera lerro hauek sustatzea: Giza eskubideak, lurren titulazioa eta elikaduraren subiranotasuna. Jarduera lerro hauetako bi lehentasunezko izendatu dira 2002ko urtean; honela, bada, aztertu ditugun proiektuetatik %28,6 bi jarduera horietakoren batekoak dira.



- e) Genero politikak indartzea: urtealdi honetatik aurrera genero ikuspegia txertatzen zaie proiektu guztiei.
- f) Giza sentsibilizazioa eta garapenerako heziketa sustatzea: Horretarako , jarduera lerro honen babesean ematen diren laguntzen gehieneko muga gehitu da, %10 izatetik %15era aldatuaz, nahiz egiaz emandako zenbatekoa %10,8koa izan den. Nolanahi dela ere, 2001eko urtealdiarekiko %3,3koa izan da igoera, eta 2000koarekiko, berriz, %87koa.
- g) Diruz lagungarri diren gastuak eta horien justifikazioa argitu eta sinplifikatzea: 2001eko urtealdiarekiko egin den aldaketarik behinena, administrazioarekin hitzarmen bat izenpetzeko beharra izan da, behin-betiko aurrekontua, proiektuari atxikitako kontu arruntak eta hasiera data besarkatuko dituenak. Halaber, kostu zuzenen %100 justifikatzeko obligazioa berariaz adierazten da. Eta gainera, onuradunek hainbat eragotzi behar duten finantza informazioa betetzeko xehetasunezko aginduak mamitu dira.

2. Laguntzen eskabideen kopuruak aurrekontuaren aukerak nabarmen gaitzen baditu ere, hitzartu gabe utzi da 1.934 mila euroko zenbatekoa, garapenerako kooperazio proiektuei laguntzak ematea arautzen duen araudia urratuz, izan ere agintzen baitu, aurrekontuzko soberakinak badaude, laguntza hauen emakida zabaldu egingo dela.

3. Ez dira programaren sarrera modura barne hartzen diputazioek egindako 6.558 mila euroko ekarpenak, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren Erabakien arabera, aurrekontu programa honi atxikiak daudenak.

4. Irabazi asmorik gabeko erakundeek aurkeztutako garapenerako proiektuei emandako laguntzetako batean (9. esp), emandako dirulaguntzaren zenbatekoak 171/2002 Dekretuan finkatutako mugei gaina hartu zien 14.302 eurotan. Bestalde, giza sentsibilizazioa eta garapenerako heziketa proiektu batean (43. esp.), 20.041 euroko laguntza eman zaio, nahiz ez den eskatutako gutxieneko baloraketara iristen.

5. Gobernu Kontseiluak zuzenean emandako dirulaguntzak, Batzorde Kudeatzaileak hala proposatuta, "Hitzarmenen" bitartez izapidetzen dira, 171/2002 Dekretuaren X. G. 1.aren arabera. Berrikusi ditugun 3 hitzarmenetatik 1ean (48. esp.), 352 mila eurokoa, ez da behar hainbat justifikatu prozedura zuzenaren aparteko erabilera. "Laguntza humanitarioen" kasuan, nahiz eta hauek saileko teknikariek ebaluatzen dituzten, Kudeaketa Batzordearen proposamena ez da baloraketa horretan oinarritzen, emandako zenbatekoa justifikatzen ez dela.



6. Garapenari Laguntza Emateko eta Kooperaziorako Fondoaren konturako proiektuak arautu eta laguntzak deitzen dituen 171/2002 Dekretuaren onirizpena eta hainbat bekaren deialdien Aginduen onirizpena urtealdiaren bigarren erdian gauzatu da, emakidak 2002ko abenduaren 30era arte atzeratuaz; honek diruz lagundutako egintzei urtealdi horretan ekitea eragozten du.

7. Programaren gastu guztiak “Langile gastuak” eta “Kapital transferentziak eta dirulaguntzak” atalburuetan soilik aurrekontuetaraten dira; honek urtealdian zehar kreditu globalaren bitartez “Ondasun erosketa eta zerbitzu arruntak” eta “Transferentzia eta dirulaguntza arruntak” kapituluetera kreditu transferentziak egiteko beharra eragiten du. Gure ustez ahalegina egin beharko litzateke aurrekontua kapituluaren arabera egiteko, aurrekontuaren exekuzioan izapide administratiboak murriztuz.

8. Programaren kudeaketa nagusiki aldi bateko langileriak egiten du; hauen egitekoak Euskal Funtzio Publikoaren Legeak konfiantzazko postuetara edota berariazko aholkularitza ematera mugatzen ditu

9. Kooperanteei emandako 7 beketatik 3tan (57, 60 eta 61. esp.), 55 mila euroko zenbatekoarekin, ez zuten aurkeztu 388/1995 Dekretuaren 6.2 artikulua eskatzen duen lan kontratua, nahiz eta horietako bitan kontratazio aldiari zegozkion zenbait TC-2 aurkeztu diren.

10. Berrogeita bederatzi mila euroko zenbatekoa egin duen publizitate kontratu bat (64. esp.) esleitu aurretik gauzatu zen, gerora Gobernu Kontseiluak baliokidetu zuela.



II. AZALPEN ATALAK ETA GOMENDIOAK

II.1 GARAPEN PROIEKTUEI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

A. DESKRIBAPENA

Programak kudeatzen duen jarduera nagusia “Garapenari Laguntza Emateko eta Kooperaziorako Fondoaren” (FOCAD) kargurako proiektuetarako laguntzen deialdiak, hautaketak eta jarraipenak osatzen du. 2002ko urtealdiaren deialdia uztailearen 9ko 171/2002 Dekretu bitartez oniritzi zen.

Dekretuak bost laguntza mota ezberdin arautzen ditu; horietatik hiru norgehiagoka erregimenean ematen dira, aurrez finkatutako betekizunak betetzen dituzten eskabideak baloratuta; eta beste biak zuzenean ematen dituzte, edo norgehiagoka sinplean, aparteko deialdi publiko bidez (ikus II.2 atala).

Ondoko taulak laguntzen lehenengo hiru lerroen eskabide eta emakidak erakusten ditu:

PROIEKTUAK	Mila €				
	Eskabideak		Emakidak		
	Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbat.	2002ko urtealdia
Garapenerako proiektua.....	252	61.476	82	18.570	5.571
Garapen ekoizlea, prestakuntza eta laguntza.....	23	4.946	10	1.279	384
Sentsibilizazioa eta garapen heziketa	59	4.273	33	2.392	718
TOTAL	334	70.695	125	22.241	6.673

Ondotik, dirulaguntza hauen emakidaren kronograma xehatu dugu:

Urratsa	Data
Kudeaketa Batzordeak proiektua oniritzea.....	2002/03/12
Gobernu Kontseiluak oniritzea	2002/07/09
Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea	2002/07/15
Eskabideak aurkezteko azken eguna	2002/08/31
Kudeaketa Batzordeak oniritzitako ebazpen proposamena	2002/11/22
Sailburuak oniritzitako emakida agindua	2002/12/30
Agintaritza aldizkarian ebazpena argitaratzea.....	2003/02/28

Onuradunei proiektuaren hasiera urtean zehar egitea eskatzen zaien bitartean, laguntzak oniritzeko prozesua dezente luzatu da, urtealdiaren azken egunera arte atzeratuaz. Izatez gainera, garapenerako proiektuen kasu batean eta giza sentsibilizazio eta garapen heziketarako beste bitan, proiektuari 2003k urtean ekin zaiola egiaztatu dugu.

Batzorde Kudeatzaileak proiektua lehenago oniritzen saiatu behar da; baita honen eta Gobernu Kontseiluaren oniritzenaren arteko epea murrizten ere, urtealdiaren lehenengo hiruhilekoan gauza dadin. Halaber, izapide hauek arintzen lagungarri gerta daiteke denboran iraungo duen dekretu bat onartzeak,



urtean izapidetu beharrekoa, zenbatekoak eta epeak zehaztera eta beharrezko iritzitako aldaketak bideratzera mugatuko dena.

Laguntzen hiru multzoetan, proiektuen hautaketa bi fasetan egiten da, eskabideak laguntzak baino askoz ere ugariagoak baitira: lehenengo, eskakizunak betetzen dituzten erakunde eta proiektuak hautatzen dira, eta gerora, guztira 100 puntu osatzen dituzten hainbat irizpideren arabera (20 eta 27 bitartean) baloratzen dituzte, puntuaketarik handiena osatu duten haiek hautatuaz.

B. GARAPENERAKO KOOPERAZIOA

Laguntza hauek irabazi asmorik gabeko erakundeei ematen zaizkie; hauek dituzten helburuen artean herrialde pobreen garapenera zuzendutako proiektuak gauzatzea dago. Erakunde horiek, berebat, hitzarmena izenpetu behar dute dena delako herrialdeko kide batekin eta honekin garatuko da proiektua bere herrialdean.

Adierazi dugun modura, atzera botatako proiektu kopuru adierazgarria dago, gehienak emandako puntuaketa oinarri hartuta, gutxienez 58 puntu egin dituzten haiek onartuaz. Erretserban gordetzen dira beste 10 proiektu, soberakinezko baliabideak izango balira ere. Urtealdian aurrekontu kreditu osoa kontsumitu ez arren, emakidaren onirizpen datak zaildu egiten du soberakinak proiektu hauetarako erabiltzea.

Departamentuko teknikariek proiektuei buruz egindako baloraketen analisiak bide eman digu laguntza hauekin eskuratu asmo dituzten helburuei buruzko hainbat ondorio ateratzeko:

- a) Proiektuetan gutxien baloratutako irizpidea lerro sektorialeki dagokiena da, aurrez lehenetsutako modura zehaztutakoak (giza baliabideak, kultur aniztasuna, lurren titulazioa, elikadura-subirotasuna eta ekonomia popularren sendotzea). Aztertu ditugun 28 espedienteetatik, 8k baizik ez dituzte aintzat hartzen lerro sektorial horiek.
- b) Dekretuak aurreikusitako beste alderdi batzuk, hainbat erakunderen artean proiektua elkartuta egitea edota jarduera sektore bat baino gehiagotan aritzea, hautatu zirenetatik, hurrenez hurren, 4 eta 3 proiektutan soilik barne hartu zituzten.
- c) Gehien baloratutako alderdiak proiektuaren planteamenduan koherentzia izateari eta erakundearen esperientzia eta oinarri sozialari dagozkio, nahiz eta ez diren erabakigarriak proiektuak eman edo ukatzerakoan, izan ere, uko egindakoen baloraketa ez baita laguntzak jasotzen dituztenetik bereizten.
- d) Laguntzak jasotzen dituzten eta gutxieneko puntuaketa lortzen ez duten proiektuen arteko alde nagusia, proiektuaren bideragarritasun eta iraunkortasunari erreferentzia egiten dioten haiek dira.



Baloraketa hauen erabilera eta egiteko moldea zuzena dela uste dugu, baina sinplifikatzeko ahalegina egin beharko litzateke, lehentasunezko iritzitako alderdiak lehenestea eta hautaketa prozesua erraztea bideratuko lukeena.

Onartutako laguntzen banaketa kontinenteen arabera, honako hau da:

	Mila €		
Kontinentea	2002	2001	2000
Afrika.....	4.229	3.838	3.038
Asia.....	1.812	1.700	2.087
Ertamerika eta Karibe.....	6.805	5.760	6.804
Europa	338	0	0
Hegoamerika.....	5.386	6.867	9.189
GUZTIRA	18.570	18.165	21.118

Amerika Latinoko herrialdeetarako joera hau euskal ONGDekin konsubstantziala da eta azken urtealdi hauetan azaleratu den legez, halaxe izan zen 1996an, programa hau bera aztertu genuen azken data. 2002an Ertamerika, Karibe eta Afrikarako laguntzek gora egin dutela ikusi dugu, Hegoamerikari emandakoen kaltetan. Emakida hauek jasotako eskabideen araberakoak izan ohi dira, Afrika soilik bereizten delarik, laguntzen ia %23 jasotzen baitu, eskabideak %16koak izanda.

Proiektuek eragiten dituzten jarduera sektoreei dagokienez, ez dago sailean gainerakoekiko lehentasunezko denik, nahiz baloraketa positiboa jasotzen duten sektore batean baino gehiagotan diharduen proiektuak, "multisektorial" izenburupean jasoak daudenak. Proiektu hauek hezkuntza sektoreko jarduerak, honekin lotutako beste sektoreren bateko jarduerekin lotzen dituzte.



Sektoreen araberako xehapena, honakoa izan da:

Sektorea	2002
Nekazaritza	%22
Osasuna	%16
Hezkuntza.....	%11
Industria.....	%8
Multisektoriala	%11
Ur hornidura	%7
Eraikuntza	%7
Garraioa eta biltegia.....	%7
Beste batzuk	%11
GUZTIRA	%100

Sektoreen araberako xehapen hau, xede den biztanleriarena bezala, aztertu ditugun espedienteetatik eskuratu dugu, izan ere, datu hauek ez baitituzte garapenerako kooperazio zuzendaritzak egiten duen espedienteen kontrolerako datu baseetan barne hartu; halaber, kalkulua egiteko, proiektu bakoitzari guztira emandako dirulaguntza hartu da abiaburu.

Proiektuen banaketa, lehenatasunez xede duten biztanleriaren arabera, honako hau da:

Xede biztanleria	2002
Emakumeen kolektiboak.....	%12
Indigenak eta gutxiengo etnikoak	%11
Nekazal biztanleria.....	%44
Errefuxiatuak	%14
Hautzaroa eta gazteria.....	%8
Hiri pobreziaaren inguruak.....	%5
Biztanleria orokorra.....	%6
GUZTIRA	%100

Biztanleria orokorraren kasua salbu, laguntzaren xede diren kolektibo guztiak helburuzkotzat hartzen dira Dekretuan, laguntza jasotzeko betekizun modura eratu baitira.

Emandako laguntzekin egindako gastu eta inbertsioari dagokionez, horren norakoa, garapenerako kooperazio proiektuak kontrolatzeko erabilitako sailkapenaren arabera, honako hau izan da:



PROIEKTUAK	Mila €			
	Aurrekontua		Dirulaguntza	
	Zenbatekoa	Portzentaia	Zenbatekoak	Portzent.
Lursail eta eraikinen erosketa	1.358	%9	39	%0
Eraikuntza	4.457	%28	2.885	%28
Ekipo eta materialaren erosketa eta garraioa	5.168	%33	4.127	%39
Tokiko langileen gastuak	1.920	%12	1.138	%11
Deserriratutako pertsonen kostuak	345	%2	303	%3
Gaikuntza eta prestakuntza kostuak	1.094	%7	807	%8
Fondo birakaria.....	53	%0	53	%1
Funtzionamendu gastuak	1.011	%6	548	%5
Zeharkako gastuak.....	518	%3	498	%5
GUZTIRA	15.924	%100	10.398	%100

“Zeharkako kostuak” proiektuaren aurrekontuaren arabera ehuneko modura kalkulatu dira, eta ONGDren gastu orokorrei aurre egiteko dira. “Funtzionamendu gastuek”, berriz, proiektuaren kudeaketa zuzenean sortutako mota honetako gastuak barne hartzen dituzte, tokiko sozioaren gastu orokorrak jasotzerik ez dagoela. Honenbestez, laguntza hauen %95 proiektuak sortutako gastu orokorrei ezartzen zaizkie.

Halaber, azpimarratzekoa da eskatu eta eman ez den dirulaguntza ez dela Dekretuan finkatutako %75eko limitera iristen, ONGDek aurkeztutako aurrekontuaren %65ean geratzen dela.

Garapenerako Kooperazio Zuzendaritzak aztertu egin behar luke Gobernuaren laguntza bat bera izanda, jardueraren xede den herrialde edo guneko pobreak inbertsio handiagoa ekoiztea lortu duten proiektuak saritzeko aukera.

Espediente hauetatik 28 aztertu ditugu eta zera azaleratu zaigu:

- Proiektu batean (9. esp.) 14.302 eurotan gainditu zen deserriratutako langileen kontusailari dagokion muga. (Garapen Bidean dagoen Herrialdera (GBH) joandako kooperanteak).
- Aztertutako proiektuetatik 4tan ezin egiaztatu izan dugu proformako ordainagiriarekin, aurkeztutako aurrekontuan barne hartutako zenbait kontusail; batean (9. esp.) guztizko aurrekontuaren %20 egiten zuen eta beste hiru kasuetan (1,3 eta 27. esp.) %6tik beherakoa zen.
- 21 espedientetan ez dago erakunde eskatzailearen agiri edo aitorturik, zigorbidezko inolako prozeduratan ez dagoela dioenik. (1etik 6ra, 8, 9, 13tik 16ra eta 19tik 28ra bitarteko espedienteak).



C. GARAPEN EKOIZLEA, PRESTAKUNTZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA

Laguntza hauek ematen zaizkie unibertsitate, enpresa, ospitale, teknologia-, hezkuntza- eta prestakuntza zentroi eta merkataritza izaerarik gabeko entitate atxikituei, aurreko atalean proiekturik aurkeztu gabekoei. Erakunde hauek, aldi berean, hitzarmen bat izenpetu behar dute tokiko sozio batekin, eta horrekin garatuko dute proiektua bere herrialdean.

Laguntzen lerro honetan, aurkeztutako 23 proiektutatik, 13 atzera bota zituzten 171/2002 Dekretuak eskatutako betekizunak ez betetzeagatik. Aurkeztutako gainerako proiektuek eskatutako laguntza jaso zuten.

Departamenduko teknikariek egindako baloraketetatik ondorioztatu dugu aipatutako proiektuek doi-doi betetzen dituztela Dekretuak finkatutako irizpideak, baloraketarik onena eskuratu duenak 46 puntu lortu dituelarik: Honela, bada, onartutako 10 proiektuetatik batek baizik ez zuen lehentasunezko modura bereizitako jarduera lerroetako batean eragiten; bi ez zeuden lehentasunezko zat jotako kolektiboetatik batera ere zuzenduak; eta 4 proiektu soilik zuzendu dira 0,8tik beherako giza garapen indizea (GGI) duten lurraldeetara (herrialde bat garatutzat jotzeko muga), nahiz eta Dekretuaren 9. artikulua adierazten duen destinoa herrialde pobretua izango dela. Bestetik, bi proiektutan erabaki zen 26 baloraketa irizpideetatik 7 ez zirela ezargarriak.

Proiektu hauek balioztatzeko finkatutako irizpideak berrikusteko gomendatzen dugu, sustatu nahi diren jarduera motara egokituaz eta laguntzetara irispidea izateko irizpide edo gutxieneko puntuak ezar daitezela, hobeto balioztatutako beste lerro batzuetako proiektuak dirulaguntzarik gabe geratzea ekidinez.

Ondoko taulak diruz lagundutako proiektu guztien banaketa herrialdeen arabera erakusten du:

PROIEKTUAK	Mila €	
	Aurrekontua	Dirulaguntza
Txile	1.336	567
Kuba	694	362
Ekuador	299	166
Hainbat herrialde.....	95	34
Euskadi	203	150
GUZTIRA	2.627	1.279

Euskadin egindako proiektuak GBHtik eratorritako langileen prestakuntza tekniko eta sozialeko proiektuei dagozkie, EAEn gauzatzen direnak.

Proiektu guztien gastuaren norakoari dagokionez, ondoko taulan “Ekipo eta materialaren erosketa eta garraioa”, “Gaikuntza eta prestakuntza kostuak” eta “Eraikuntza” ataletan metatu dela gastu hori ikus daiteke:



PROIEKTUAK	Aurrekontua		Dirulaguntza	
	Zenbatekoa	Portzentaia	Zenbatekoak	Portzent.
Lursail eta eraikinen erosketa	76	%3	0	%0
Eraikuntza	593	%23	75	%6
Ekipo eta materialaren erosketa eta garraioa	816	%31	723	%56
Tokiko langileen gastuak	185	%7	20	%2
Deserriratutako pertsonen kostuak	112	%4	66	%5
Gaikuntza eta prestakuntza kostuak	585	%22	283	%22
Fondo birakaria	22	%1	0	%0
Funtzionamendu gastuak	163	%6	53	%4
Zeharkako gastuak	75	%3	59	%5
GUZTIRA	2.627	%100	1.279	%100

Espediente hauetako 4tan egin dugun azterketan ikusi dugu horietako bakar batean ere ez dagoela erakunde eskatzailearen egiaztagiri edo aitorpenik, inongo zigor prozeduretan ez dagoela sartua adierazten duena.

D. SENTSIBILIZAZIOA ETA GARAPENERAKO HEZIKETA

Laguntza hauek irabazi asmorik gabeko entitateei ematen zaizkie eta hauen helburuen artean, pobretutako herrialdeen garapenera zuzendutako proiektuak egitea dago. Finantzatutako proiektuak euskal gizartean solidaritate izpiritua sustatzeko eta herrialde hauen problematika osotasunean ulertuko dela bermatuko duten ikuspegi eta pentsamoldeak sortzen laguntzea da.

Aurkeztu diren 59 proiektuetatik, 20 atzera bota dira eskuratutako puntuaketa oinarri hartuta, 62 puntuko gutxienekoa lortu zuten haiek soilik onartuz.

Aztertutako 11 espedienteetatik hirutan (6, 9 eta 11. esp.), emandako puntuaketa gaizki batuta zegoena, proiektuetako bat finkatutako gutxienekoaz azpitik geratu zelarik.

Gogoan izanda zenbateko garrantzia duten egiten diren baloraketek laguntzak emateko edo ez, beharrezkoa da kalifikazioen zuzentasuna bermatzeko bide emango duten neurriak hartzea, informatika programen bidez garatuz.

Espediente hauetatik 11tan egin dugun berrikuspenean, zera ikusi dugu:

- Horietako bitan (36 eta 37. esp.), zeinetan proiektuak amaituak behar zuketena gure ikuskapena baino 7 hilabete lehenago, ez zen ageri 171/2002 Dekretuaren 27. artikulua egiteko agintzen duen azken txostena.
- Espediente batean ere ez dago erakunde eskatzailearen egiaztagiri edo aitorpenik, inongo zigor prozeduretan ez dagoela sartua adierazten duena.



Aztertutako espedienteei jarraiki, proiektu hauen gastuaren egitura eta emandako dirulaguntzena honako hau da:

PROIEKTUAK	Mila €			
	Aurrekontua		Dirulaguntza	
	Zenbatekoa	Portzentaia	Zenbatekoak	Portzent.
Material erosketa	221	% 14	155	% 14
Zuzeneko langileen kostua	504	% 33	372	% 34
Bidaiak, ostatua eta mantenua	78	% 5	62	% 6
Kanpoko zerbitzuen kontratazioa	464	% 30	327	% 29
Publizitate kostuak	56	% 4	44	% 4
Itzulpen kostuak	57	% 4	48	% 4
Funtzionamendu gastuak	84	% 6	39	% 4
Zeharkako kostuak	67	% 4	60	% 5
GUZTIRA	1.531	% 100	1.107	% 100

Proiektu hauek xede dituzten alorrak honako taldeotan zati-banatu ditugu:

Sektorea	2002
Sentsibilizazio orokorra	% 21
Eskola haurren sentsibilizazioa	% 45
Kooperanteen prestakuntza	% 19
ikerketa	% 15
GUZTIRA	% 100

II.2 LAGUNTZA HUMANITARIOAK ETA HITZARMENAK

171/2002 Dekretuak V. kapituluan eta 1. eta 2. xedapen gehigarrietan beste laguntza batzuk ematen uzten du urtealdian zehar egindako deialdi ireki bitartez, edota zuzenean Gobernu Kontseiluak oniritzitako hitzarmen bidez. Halaber, premiazko egoera edo bereziki ondorio larriko egoeretarako aparteko deialdia egiteko aukera ere aurreikusia dago, 2002ko urtean erabili ez dena.

PROIEKTUAK	Mila €		
	kopurua	zenbat.	2002ko urtekoa
Ekintza Humanitarioei laguntzak	5	810	810
Hitzarmenak	3	1.039	659
GUZTIRA	8	1.849	1.469



A. EKINTZA HUMANITARIOEI LAGUNTZAK

Araudiak aurkeztutako proiektu bakoitzaren interesa balio-neurtzeko modua ezartzen du, baina ez ditu gehieneko dirulaguntzaren portzentaia edo laguntza portzentaia handiagoa edo txikiagoa emateko irizpideak zehazten; halaber, onuradun izateko beharrezko den gutxieneko puntuaketa ere ez da ezartzen. Baloraketa Batzorde Kudeatzaileari ematen zaion elementu informatibo hutsa baizik ez da.

Urtealdian zehar diruz lagundutako proiektuen gatuaren norakoa honako hau da:

PROIEKTUAK	Mila €			
	Aurrekontua		Dirulaguntza	
	Zenbatekoa	Portzentaia	Zenbatekoak	Portzent.
Ekipoa eta materiala erosi eta garraiatzea	337	%38	300	%37
Langile kostuak.....	11	%1	0	%0
Funtzionamendu gastuak.....	154	%17	150	%19
Oinarrizko elikadura.....	215	%24	215	%26
Tresneria eta langileria sanitarioa	150	%17	119	%15
Arropa, Mantak, higiene materiala,	1	%0	1	%0
Zeharkako kostuak.....	25	%3	25	%3
GUZTIRA	893	%100	810	%100

Diputatuen Kontseiluak oniritzitako 5 laguntzetatik 2 Batzorde Kudeatzaileak proposatu zituen 2001ean eta gainerako 3ak, 2002an. Honez gain, 2002ko urrian Batzordeak beste 5 laguntza oniritzi zituen 524 mila euroko zenbatekoarekin, Gobernu Kontseiluaren behin-betiko oniritzpena jaso ez dutenak 2003ra arte. 2001 eta 2002ko urtealdietan aurkeztutako proiektuetako bat atzera bota zen.

Atzeraldi handiak daudela ikusi dugu Batzorde Kudeatzaileak emakida proposamena egiten duenetik Gobernu Kontseiluak behin-betiko oniritzen duen arte (2001ean proposatutako espedienteek 5 eta 7 hilabete bitarte behar izan zuten oniritziak izateko); honek eragiten du hondamendi natural, gatazka armatu edo bestelako beharizan humanitario oinarrizkoen ondorioz behar gorrian dauden herrialdeen alde bideratzen diren laguntza horiek duten hasierako izaera parte hartzailea, laguntza ematekoa, sorospen eta babespenezkoa erabat galduta geratzea. Gerora, behin laguntza egiaz ordaindua dela, ez da horren justifikazioaren jarraipen zorrotza egiten.

Erregulazio askea ezarri behar litzateke, dekretuan ezarritakoez besteko emakida prozedurak izango lituzkeena, laguntza mota hau egiaz ematea arinduko luketenak eta horiek justifikatuko dituen geroko berrikusketa bideratuko luketenak.

Ekintza humanitarioetarako laguntzak emateko 2 espediente aztertu ditugu, guztira 421 mila euro egin dutenak. Espediente batean (44. esp.) ez da justifikatu jasotako



dirulaguntzaren aplikazioa, nahiz eta gure azterlana baino 8 hilabete lehenago egin behar zatekeen; egia da, ordea, aipatutako justifikazioa txosten hau egin dugun datetan jaso dela eta bestetik, onuradunak emakida egin zitzaion unean, justifikatu gabeko beste 8 laguntza zituen, batzu-batzuk 1998an emandakoak. (Ikus atzeratutako proiektuen jarraipena 22. orrialdean).

B. HITZARMENAK

171/2002 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak bide ematen du FOCADen kontura entitate publiko edo pribatuekin pobretutako herrialdeen aldeko garapen programen finantzaketa hitzarmenak gauzatzeko, subjektuaren kausa edo proiektuaren izaeragatik Dekretuak arautzen duen deialdi publikoan esku hartzerik ez dagoenean, aurrez zirkunstantzia hori arrazoituta, eta beti ere, aurrekontu baliagarritasunek bide ematen badute. Hitzarmen hauek Gobernu Kontseiluak oniritzen ditu.

2002ko urtealdian izenpetu ziren 3 hitzarmenak berrikusi ditugu. Horietako bi Batzorde Kudeatzaileak oniritzi zituen 2001eko urtean guztira 647 mila euroko dirulaguntza zenbatekoarekin eta 2002an 541 mila euroko exekuzioarekin; bestea, berriz, 2002an oniritzi zen 392 mila euroko zenbateko subentzionatuarekin eta 118 mila euroko exekuzioa izan zuen.

Ondoko taulak 2002an emandako laguntzek kontzeptuen arabera izandako destinoa erakusten du:

PROIEKTUAK	Mila €			
	Aurrekontua		Dirulaguntza	
	Zenbatekoa	Portzentaia	Zenbatekoak	Portzent.
Lursail eta eraikinen erosketa	96	%5	0	%0
Ekipo eta materialaren erosketa eta garraioa.....	1.484	%77	854	%82
Tokiko langileen kostuak.....	184	%10	35	%3
Gaikuntza eta prestakuntza kostuak	150	%8	150	%15
GUZTIRA	1.914	%100	1.039	%100

Espedienteak aztertu ditugularik ikusi dugu horietako batean (48. esp.) ez dela behar hainbat justifikatzen aparteko bide honen erabilera, publizitate eta lehia printzipioak mugatzen dituena, eta ez da zuzentasunez justifikatzen proiektu honek lehiaketa publikoan ezin lehiatu izateko arrazoa. Horren emakida gehiago da erakundeen lankidetzaz irizpideen ondorio, historikoki politika, kultur, ekonomia edo kooperaziozko harremanak izan dituzten herrialde haiekiko.



II.3 BEKAK

Departamenduak izan duen jarduera nagusienetako bat bekak ematea izan da, bai kooperanteak trebatzeko, baita ONGD edo Nazio Batuen organismoek kontratatzeko ere.

Urtealdian zehar emandako laguntzen xehapena, ondokoa da:

BEKAK	Mila €			
	Eskabideak		Emakidak	
	Kopurua	Kopurua	Zenbat.	2002ko urtekoa
Espezializazioa	44	6	108	27
Kooperantei laguntzak	29	28	472	236
Nazio Batuen Organismoekiko lankidetzak.....	54	54	675	338
GUZTIRA	127	88	1.255	601

Beka hauek argitaratu eta ebazteko datak honako hauek izan dira:

Urratsa	Espezializazioa	Kooperanteak	ONUren Organis.
Bekak deitzeko Agindua	2002/11/20	2002/10/31	2002/10/31
Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea	2002/12/12	2002/11/05	2002/11/05
Eskabideak aurkezteko azken eguna.....	2003/01/3	2002/11/22	2002/11/22
Sailburuak edo Zuzendariak oniritzitako emakida.....	2002/12/30	2002/12/30	2002/12/30
Agintaritza aldizkarian ebazpena argitaratzea	2003/03/13	2003/03/24	2003/03/24

Taulan ikus daitekeen moduan, beken deialdia atzerapen handiz oniritzi da eta honek espezializazio beketan eskabideak aurkezteko azken data 2003ko urtealdira arte luzatzea ekarri du. Hau horrela izanda ere, ebazpena 2002an gauzatu da, hautaketa abenduaren 27an egin baitzen, deialdia argitara eman eta 15 egun naturalen ostean, Dekretuak agindutako 15 lanegunen ondoren egin beharrean.

Gainera, denboran berandutza egoera sortu da beka hauek deitzen direnetik egiaz esleitzen diren arte, izangaien berehalako etorkizunean zalantza egoera eragiten duelarik eta gainera, kooperazio ekintzen hasiera deialdiaz eta ebazpenaz hurrengo urtealdira arte atzeratzea dakarrelarik.

Aurreratu egin behar litzateke denboran beken deialdia, horien emakida eta jakinarazpena egokitzearen; hartara, ekintzak laguntzak kargutzen diren aurrekontu urtealdiaren barruan hasi ahal izango lirateke.



A. ESPEZIALIZAZIO BEKAK

Helburua garapenerako kooperazioaren alorrean profesionalak berariaz gaitu eta prestatzea da. Eskatzaileek bete behar dituzten betekizunak, hautaketa irizpideak, ordaintzeko modua, beka lagundutako pertsonaren obligazioak eta gainerako baldintzak arautuak daude 138/1997 Dekretuan, nahiz diru zuzkidura dagokion deialdian zehazten den.

Sei espezializazio beka deitzen dira 12 hilabeteko aldirako, bakoitzak 18 mila euroko zuzkidura jasotzen duela. Bekadun hauen lana gehien bat Garapenerako Kooperazioaren Zuzendaritzan gauzatzen da.

2002ko urtealdian beken onuradunen 6 espedienteak aztertu ditugu eta egiaztatu dugu dekretuan finkatutako puntuaketa irizpideak iragazki lanak egiten dituztela lehenengo hautaketa batean, halaber, egiten den elkarriketa erabakigarria izanik, ez dira idatziz erasota uzten erabilitako irizpideak eta horien emaitzak.

B. KOOPERANTEEI LAGUNTZAK

Hirugarren Munduko herrialdeetan garapen proiektuetan esku hartzen duten EAEn kooperantei ematen zaizkien laguntza hauek urtero deitzen dira eta 388/1995 Dekretuak arautzen ditu.

Kooperazioaren dimentsio profesionala indartzea du helburu, Euskal kooperanteak garapen proiektu eta garapen integraleko programetan lanbide txertaketaren bidez; honenbestez, beka mota honetan boluntariora desagertu egiten da.

Aipatutako Dekretuak gastu subentzionagarritzat definitzen ditu kooperantearen ordainsariak, aseguruak eta/edo gizarte segurantzaren gastuak, EAEn gauzatutako lan kontratu baten esparruan, eta kooperantearen destinoko herrialderako eta itzulerako garraio gastuak. Dirulaguntzak gehienera bi urtealditan urteko zenbateko bat emango du, eskabidearen aurrekontu guztiaren %50a baino gehiago izango ez dena, gainerakoa kanpoko ekarpena izanik.

Aztertu ditugun 7 espedienteetatik 3tan (57, 60 eta 61. esp.) ez zen lan kontratua ageri, 388/1995 Dekretuaren 6. artikulua agintzen duen moduan.

C. ONU-REN BEKAK

Beka hauek Hirugarren Munduko herrialdeetan garapen programak gauzatzen dituzten Nazio Batzuen Nazioarteko Organismoei eta horiei lotutako pertsona juridikoei ematen zaizkie, organismo horietako garapen proiektuetan esku hartzen duten EAEn pertsona kooperantei beka emateko. Helburua da gutxienez urtebeteko epean proiektu hauetara txertatzen den pertsona trebatzea, bere tasun profesional eta gizazkoak baliatuaz eta ordainetan konpentsazio ekonomikoa jasoz.

Beka hauek urtero deitzen dira eta urtebeteko indarraldia daukate, beste urtebetez luzagarri dena.



Aztertu ditugun bi kasuetan (62. eta 63. esp.) bekaren lehenengo ordainketaren abonoa Organismoak onuradunaren alde aseguru kontratatu izana justifikatu baino lehenago gauzatu zen, 120/1997 Dekretuaren 9. artikulua agintzen duen moduan.

II.4 AURREKO URTEALDIETAKO EMAKIDAK

Dirulaguntzen emakidaz gain, Garapenerako kooperazioaren Zuzendaritzaren jardura nagusienetako bat, aurreko urtealdietan emandako dirulaguntzen kontrol eta jarraipena egitea da, laguntzek izaera urteanitzekoa baitute eta proiektu askok atzeraldi handiak izaten baitituzte, exekuzioan duten konplexutasun eta etengabeko eskabide eta emakiden aldaketa, gerorapen eta luzapenen ondorioz.

Ondoko tauletan 2002ko urtealdian konpromiso kredituek eta hondakinek izan duten exekuzioaren bilakaera erakutsiko dugu:

Aurreko urtealdietako konpromisoak		Mila €		
Urtea	Lerroa	Esleitura	Agindua	Ordaindua
2000	Garapenerako Kooperazio Proiektuak.....	4.909	4.909	2.480
2000	Garapen ekoizle, prestakuntza eta laguntza emateko proi.	706	706	451
2000	ONUren organism. emand. koop. bekak.....	162	162	162
2001	Garapenerako Kooperazio Proiektuak.....	9.130	8.895	5.429
2001	Garapen ekoizle, prestakuntza eta laguntza emateko proi.	1.585	1.585	397
2001	Sentsibilizazio eta garapenerako heziketa proi.	1.620	1.620	609
2001	Hitzarmenak.....	82	82	0
2001	Beka profesionalak	54	54	47
2001	Kooperanteei bekak	149	149	31
GUZTIRA		18.397	18.162	9.606

Gastuak aitortzen dira aurreikusitako ordainketen egutegiaren eta aurrekontuko erabilgarritasunen arabera eta urteanitzeko konpromiso modura erregistratzen dira.

Proiektuetan, dirulaguntzaren %30eko lehenengo ordainketa emakida egiten den unean erregistratzen da; hurrengo urtealdian bigarren ordainketa %50era artekoa, proiektuaren aurrekontu guztiaren gutxienez %20ko exekuzioaren agiri bidezko justifikazioa eta aurretiazko txostena eginez, eta gainerako dirulaguntza, bi urte beranduago, guztizko aurrekontuaren %70eko exekuzioa justifikatzerakoan. Proiektua amaitzerakoan, dekretuak agintzen du sei hilabeteko epean azken txosten bat aurkeztu behar dela kostu guztiak justifikatuko dituen.

Beken kasuan, obligazioaren erregistroa aurreikusitako egutegiaren arabera bi ordainketatan edo lautan, espezializazioa denean, egiten da, horien abono eta justifikazioaren arabera.



HKEEK EA Eren Administrazio Orokorraren Kontu Orokorrari buruzko txostenetan gorde duen irizpideari jarraiki, obligazioaren aitortzea ez litzateke gauzatu behar harik eta dirulaguntzaren Dekretu arautzaileak agindutako betekizunak betetzen ez diren bitartean.

Irizpide hau gogoan hartuta, gure iritziz 2002ko urtealdian 6.899 mila euro egin dituzten gastuak erregistratu dira, dirulaguntzaren onuradunek justifikazioari dagozkion betekizunak artean gauzatu ez dituztela; 2001eko urtean eta aurrekoetan 8.072 mila euroko gastuak erregistratu ziren, horien justifikazioa urtealdi honetara arte oraindik egin gabe.

Proiektuak geografikoki sakabanatuak egoteak zaildu egiten du horien inspezio fisikoa, baina exekuzioaren kontrol bideak egituratzen dira, txosten narratzaileen bidez (proiektuaren garapenaren egoera azaltzen dutenak), finantzazkoak (egindako gastuen agiri bidezko justifikazioa) eta argazki bidezko ebidentzien bidez, proiektuaren garapenean aurkeztu beharko direnak, ondoko ordainketak eskatu ahal izateko.

Aurreko urtealdietan emandako laguntzei dagozkien 19 proiektutan aurkeztutako justifikagiriak aztertu ditugu, 2002ko urtealdian 7.110 mila euroko exekuzioa izan dutenak. Horietako batean (88. esp.), ezin egiaztatu ahal izan dugu aurkeztu zela esaten zen justifikazio guztia, nahiz espedientean bildutako dokumentazioa askia zen zegokion ordainketa bideratzeko. Gainerako bi kasuetan ezin egiaztatu izan dugu ezarritako truke mota. (73 eta 75. esp.).

Ondoko taulak erakusten du aurreko urtealdietan aitortutako obligazioek, urtarilaren lein ordaintzeko zeudenek, 2002ko urtealdian izan duten bilakaera:

Hondarrak				Mila €
Jatorrizko urt.	Hasierakoa	Baliogab.	Ordaind.	Ordaintzeke
1998	358	0	1	357
1999	994	31	326	637
2000	2.812	35	1.569	1.208
2001	17.266	72	15.140	2.054
GUZTIRA	21.430	138	17.036	4.256

2001 eta 2002ko urtealdietan atzeratuta zeuden proiektu guztiak berrikusi ziren, eperen bat justifikatzeko zutenak edota exekuzioaren azken txostena jasotzeko zutenak, espediente horien behin-betiko artxibatzearen; nolahi ere, aurreko taulan ikus daitekeenez, oraindik erregistratutako gastuetatik 994 mila euro geratzen dira justifikatzeko, 1998 eta 1999ko proiektuei dagozkienak, nahiz eskatutako dokumentazio egiaztagarria izapidetzen ari diren eta igortzeko epe barruan dagoen.

Beharrezkoa irizten diogu dirulaguntza horiek ikuskatzen jarraitzeari, justifikatzeko eskatuz edota baliogabetuz, ezbetetzeak azaleratzen diren kasuetan.



II.5 AURREKONTUA EGITEA

		mila €			
Kap.	Azalpena	Hasierako aurrek.	Transferentzia		Amaierako aurrek.
			Jatorria	Norakoa	
1	Langile gastuak	316	120	130	326
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	0	150	1.202	1.052
4	Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	0	142	12.332	12.190
7	Transferentzia eta kapital dirulaguntzak	30.051	13.815	413	16.649
GUZTIRA		30.367	14.227	14.077	30.217

Langile gastuetarako zuzkidura salbuetsita, programaren aurrekontu guztia transferentzia eta kapital dirulaguntzen 7. kapituluaren erregistratzen da; honek eragiten du urtealdian zehar hainbat kreditu transferentzia egin behar direla kapitulu honetatik gastu arrunten 2. eta 4. kapituluetara, kreditu globala erabili. Honez gainera, 150 mila euro erabili dira Osasun Saileko gastuak finantzatzeko, herrialde horietako gaixoei laguntza sanitarioa emateko, Etxebizitza eta Gizarte Gaien eta Osasun Departamentuaren artean 1997ko maiatzaren 22an izenpetutako hitzarmenaren ondorioz.

Kapituluka aurrekontua egiteko ahalegina egin beharko litzateke, izan ere, honek aurrekontuaren exekuzioan zehar administrazioko izapideak murriztuko bailituzke.

Programaren aurrekontuak EAEren Administrazio Orokorraren aurrekontu operatiboa izenekoaren %0,71 inguru egiten du, hau da, gastuen aurrekontuarena, zorpidetatik eratorritako gastuak barne hartu gabe (gastuen atalburuaren 3. eta 9. kapituluak), ez langile gastuak ere. Halaber, gastu horietatik ez dira likidatzen diputazioek FOCAD finantzatzeko egindako ekarpenak ere.

Ondoko taulak portzentaia ezberdinak erakusten ditu, segun eta zein den aintzat hartzen den aurrekontua, eta segun eta exekuzioaren datuak, edota aurrekontuaren hartzen diren:



	Mila €	
	Hasierako aurrekontua	Agindutakoa
FOCADen gastuak (*)		
Langile gastuekin (1)	30.367	28.402
Langile gasturik gabe (2)	30.051	28.087
Diputazioek egindako ekarpenak (3)	6.589	6.589
EA Eren Administrazio Orokorren gastuak		
Langile gastuekin (4)	5.495.969	5.744.347
Langile gasturik gabe (5)	4.235.185	4.455.914
Focaden gastuen portzentaia Adm. Orok. gastuen gainean		
Langile gastuekin (1) / (4)	%0,55	%0,49
Langile gasturik gabe (2) / (5)	%0,71	%0,63
Focaden gastu propioen portzentaia Adm. Orok. gastuen gainean		
Langile gastuekin (1) - (3) / (4)	%0,43	%0,37
Langile gasturik gabe (2) - (3) / (5)	%0,55	%0,48

(*) GBHetako haurrei atentzio sanitarioa emateko transferitutako 150 mila euroak barne hartzen ditu.

Nahiz eta programa Gobernuaren aurrekontu guztiaren %0,71ren pareko den aurrekontuarekin zuzkitzen den arren, langile gasturik gabe, ez zorpidetzatik eratorritako gastuak, programaren aurrekontuaren %100 ez exekutatzek (ez dira 1.964 mila euroko zenbatekoa egiten duten kredituak exekutatu) portzentaia hori %0,63ra murrizten du..

